Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2026ko uztailaren 15a, asteazkena — 132 — Miércoles, a 15 de julio de 2026

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## OIARTZUNGO UDALA

*Iragarkia*

Oiartzungo Udalak 2026ko apirilaren 29an eginiko Osoko Bilkuran «Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako administrazioen eremuan bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko erregelamenduaren aldaketa»ri hasierako onespena eman zion, eta espedientea jendaurrean jarri zen 30 eguneko epean, 2026ko maiatzaren 18tik ekainaren 29a arte. Aipatu epean inolako erreklamaziorik ez eta oharpenik jaso ez denez, behin betikoz onartutzat jotzen da, eta aldatutako testua argitaratzen da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoa betez, behin 65.2 artikuluan ezarritako epea igaro ondoren.

Administrazio bidean behin betikoa den akordio honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Oiartzun, 2026ko uztailaren 3a.—Joana Mendiboure, alkatea. (4597)

*Behin betiko onartzea Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako administrazioen eremuan bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko Erregelamenduaren aldaketa.*

Ondorengo aldaketak jaso dira:

Zioen azalpena. Erregelamenduaren hasierako argitalpenetik gehituz joan diren operadoreak eguneratzea.

12. artikuluan –Mugikortasun urriko bidaiarien tarifa-araubidea– eta 44. artikulua –Garraio-titulu balioduna eramateko betebeharra–, «pertsonalizatua» terminoa gehitu da Mugi txartelari egindako erreferentzia guztiekin batera.

19. artikuluan –Umeen kotxe eta aulkietarako sarbidea–, hurrengo esaldia kentzen da:

«Adingabea garraiatzen ez duten haur-kotxe edo -aulkiak tolestuta eraman beharko dira.»

21. artikulua –Konpainiako animalien sarbidea–, honela idatzita geratzen da:

«Baimena ematen zaie etxeko animaliak babesteko 9/2022 Legean halakotzat definitutako konpainia-animaliei, txakurrak, katuak eta hudoak sartzea barne.

Etxeko animaliek lagunduta bidaiatzea baimenduta dagoen zerbitzuetan, nolanahi ere, baldintza hauek bete beharko dira:

a. Animaliek beren ekintzen erantzule den pertsona batek lagunduta bidaiatu beharko dute.

## AYUNTAMIENTO DE OIARTZUN

*Anuncio*

Se aprobó inicialmente por el Ayuntamiento de Oiartzun en sesión plenaria celebrada el 29 de abril de 2026 la «Modificación del Reglamento de armonización de los servicios públicos regulares de transporte de personas viajeras por carretera en el ámbito de las administraciones guipuzcoanas integradas en la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa», y se sometió el expediente a información pública por un periodo de 30 días, desde el 18 de mayo hasta el 29 de junio de 2026. No habiéndose recibido ninguna reclamación ni observación en el plazo señalado, se da por definitivamente aprobada y se procede a la publicación del texto modificado, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, una vez transcurrido el plazo establecido en el artículo 65.2.

Contra el presente Acuerdo, que es definitivo en vía administrativa, podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Oiartzun, a 3 de julio de 2026.—La alcaldesa, Joana Mendiboure. (4597)

*Aprobar definitivamente la modificación del Reglamento de armonización de los servicios públicos regulares de transporte de personas viajeras por carretera en el ámbito de las administraciones guipuzcoanas integradas en la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa.*

Se incluyen las siguientes modificaciones:

Exposición de motivos. Actualizar los operadores que se han ido incorporando desde la publicación inicial del Reglamento.

En los artículos 12 –Régimen tarifario de las personas viajeras con movilidad reducida– y 44 –Obligación de portar el título de transporte válido–, se ha añadido el término «personalizada» junto a toda referencia a la tarjeta Mugi.

El artículo 19 –Acceso de coches y sillas de niños–, se elimina la siguiente frase:

«Los coches o sillas de niños que no transporten un menor deberán ir plegados.»

El artículo 21 –Acceso de animales de compañía–, queda redactado en los siguientes términos:

«Se autoriza el acceso de aquellos animales de compañía definidos como tales en la Ley 9/2022 de protección de los animales domésticos, incluyendo el acceso de perros, gatos y hurones.

En aquellos servicios en que se autorice viajar con animales de compañía se deberán respetar, en todo caso, las siguientes condiciones:

a. Los animales deberán viajar acompañados por una persona responsable que responda de sus actos.

EK\CV GAO-I-2026-04597

b. Animaliak kaiola, ontzi edo homologatutako beste edukiontzi itxi baten barruan eraman beharko dira nahitaez, zaintzailearentzako eserleku gehigarririk izan gabe eta haien usain edo zaratagatik eragozpenik sortu gabe, edo, oro har, gainerako bidaiarien erosotasuna murriztu gabe. Horri buruzko eztabaidarik izanez gero, gidarien irizpidea nagusituko da. Zaintzaile bakoitzeko ontzi baterako sarbidea mugatzen da.

c. Maletategia duten ibilgailuetan, abereek bertan joan beharko dute nahitaez, kaiola, jasotze-elementu edo gailuz itxitako beste edukiontzi homologatu baten barruan, gorozkiak gordetzeko eta kentzeko.

d. Txakurrek zaintzailearen besoetan bidaiatu ahal izango dute, baldin eta eserlekuaren zabalera edo ibilgailuaren plataforma gainditzen ez badute. Bi kasuetan, animaliaren ezaugarrietarako egokia den uhalaren bidez lotu beharko dira, uneoro zaintzailearekin kontaktu fisikoan egon dadin, muturrekoa, baimendutako albaitaritza-zentro batek emandako osasun-txartela eta erantzukizun zibileko aseguru bat dutela, indarrean dagoen legerian aurreikusitako higiene- eta osasun-baldintzetan eta segurtasun-baldintzetan. Gidariek animaliaren osasun-txartela eskatu ahal izango dute, animaliaren gutxieneko higiene- eta osasun-baldintzak betetzen ez dituela adierazten duten zantzuak daudenean edo animaliarekin lotutako edozein motatako eztabaidak sortzen direnean.

Nolanahi ere, adierazitako osasun-txartela eta aseguru-poliza erakustea eskatu ahal izango da, pertsonei edo ondasunei kalte eragiten dien arazoren bat gertatuz gero.

e. Animaliek ezin izango dute inola ere bidaiatu gaueko zerbitzuetan.

f. Debekatuta dago animaliak garraio publikoan sartzea higiene- eta osasun-baldintza eskasetan eta/edo sartze horrek ibilgailuen garbitasun-baldintzak aldatzea edo beste erabiltzaile batzuei eragozpenak eragitea dakarrenean.

g. Pertsona bakoitzeko animalia bakarra onartuko da. Ibilgailu baten plataforman gehienez ere bi animalia bidaiatu ahal izango dira aldi berean.

h. Eramailearen erantzukizuna izango dira animaliak eragin ditzakeen kalteak, salbu eta hirugarren batek edo garraioen enpresa operadoreak egiaztatutako erantzukizuna.

i. Bidaiariren batek animalia dela-eta eragozpenak jartzen dituen unean (adibidez, erreakzio alergikoak dituelako, edo usain edo zaratagatik), eta animalia horren zaintzailea baino lehen igo bada, animalia eta zaintzailea ibilgailuaren beste leku batera aldatzeko betebeharra izango dute.

Artikulu honetan adierazitakotik salbuetsita daude itsu-txakurrak eta laguntza-txakurrak, baldin eta eginkizun horiek betetzeko zentro homologatuek egiaztatuta badaude; hala bada, une oro bidaiatu ahal izango dute laguntzen dioten pertsonaren ondoan, eta ezargarria den araudian ezarritako baldintzetan.»

b. Los animales serán portados obligatoriamente dentro de una jaula, receptáculo u otro contenedor homologado cerrado, sin ocupar asiento adicional a su cuidador y sin que produzcan molestias por su olor o ruido, o disminuyan, en general, el confort del resto de las personas viajeras. En caso de controversia al respecto, prevalecerá el criterio del personal de conducción. Se limita el acceso a un receptáculo por cuidador.

c. En los vehículos que dispongan de bodega, los animales deberán ir obligatoriamente en la misma, dentro de una jaula, elemento receptáculo u otro contenedor homologado cerrado con dispositivo que permita contener y retirar los excrementos.

d. Los perros podrán viajar en brazos de su cuidador siempre y cuando no superen el ancho del asiento, o en la plataforma del vehículo. En ambos casos, deberán ir sujetos mediante una correa adecuada a las características del animal, que lo mantenga en todo momento en contacto físico con su cuidador, provistos de bozal, de la tarjeta sanitaria expedida por un centro veterinario autorizado y de un seguro de responsabilidad civil, en las condiciones higiénico-sanitarias y de seguridad previstas en la legislación vigente. El personal de conducción podrá exigir la cartilla sanitaria del animal cuando existan indicios de que el mismo no cumple las condiciones higiénico-sanitarias mínimas o cuando se suscite cualquier tipo de controversia relacionada con él.

En todo caso, será exigible la exhibición de la cartilla sanitaria y de la póliza de seguro precitadas, en caso de incidente que cause daño a las personas o bines.

e. En ningún caso podrán viajar animales en servicios nocturnos.

f. Se prohíbe el acceso de animales al trasporte público en condiciones higiénico sanitarias deficientes y/o cuando dicho acceso suponga alteración de las condiciones de limpieza de los vehículos o molestias a otras personas usuarias.

g. Solo se admitirá un único animal por persona. El número máximo de animales que podrá viajar de forma simultánea en la plataforma de un vehículo es de dos.

h. Serán responsabilidad del portador los daños que el animal pueda ocasionar, salvo responsabilidad acreditada de cualquier tercero o de la empresa operadora de transportes.

i. En el momento en el que alguna persona viajera refiera sentirse molestada (vg. reacciones alérgicas, olores o ruidos) por las condiciones de un animal y hubiera embarcado antes que el cuidador de dicho animal, éstos últimos tendrán la obligación de trasladarse a otra zona del vehículo.

Se exceptúan de todo lo señalado en el presente artículo los perros guías y de asistencia que acrediten estar autorizados para estas funciones por centros homologados, que podrán viajar, en todo momento, junto a la persona que asisten y en las condiciones que se establezcan en la norma.»

EK\CV GAO-I-2026-04597